

ORRIALDEA

ORRIALDEA

Beste Xedapenak

- 106/1994 FORU AGINDUA, apirilaren 5koa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntz Eskola Ofizialetan Pertsona Bakarreko Gobernu Organoak hautatzeko arauak ematen dituena. 2365
- FORU AGINDUA, 1994.eko maiatzaren 13koa, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak emana, Nafarroako Landetxeen Elkarteei eta Mendiko Hotel Txikien Elkarteei 1994.ean laguntzak emateko deialdia onesten duena. 2366
- FORU AGINDUA, 1994.eko maiatzaren 13koa, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak emana, Toki Entitateek 1994.ean antolatu eta interes turistikoa duten ihardueren proiektu eta inbertsioetarako laguntzak emateko deialdia onesten duena. 2367
- 457/1994 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Hezkuntza Zuzendari Nagusiak emana, 1994.eko udan Frantses, Ingeles edo Alemanierazko Udako Ikastaroak egiteko Laguntzetarako Deialdia ebazten duena. 2367
- 241/1994 EBAZPENA, maiatzaren 4koa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiak emana, etxe nagusia Corellan (Nafarroa) Tajadas kaleko 26an eta Identifikazio Kodea I.K.NA-019 duen "Navarro Alvarez Tours, S.L." Sozietateari, "Viajes Naval" izenarekin, Gutxika-ikaztele taldeko Bidai Agentzien lizentzia-titulua ematen diona. 2368
- NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIA. Iragarkiak, Auzitegira agertu eta gora jotzeko helegiteei alegazioak aurkeztekoak. 2369

II. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO LOKALA 2374

IV. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA 2382

V. JUSTIZI ADMINISTRAZIOA 2382

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

Xedapen Orokorrak. Foru Dekretuak

102/1994 FORU DEKRETUA, maiatzaren 16koa, Nafarroako kale izendegiak eguneratuta edukitzeko arauak ematen dituena.

Udal bateko kale-bideen izendegiak behar bezala eguneratuta izatea, izen ofizialak, zenbakiak bere tokian, populazio entitatearen xehe-tasuna, zentsuko barruti eta atalak eta, baldin badaude, haien identifikaziorako kode eta erreferentzia geografikoak adierazita daudela, oinarriko elementua da estatistika eta administrazio arloko lanetarako.

Gai honi buruzko udal autonomia, indarra duen arauterik aitordua, erabat errespetatuz, badirudi komenigarri dela informazio hori eguneratuko dela bermatzea, bai eginbehar estatistikoak bai administratiboak egin ahal izateko.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena emanik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hamalauko maiatzaren hamaseian egindako bilkuran hartutako erabakiari jarraituz,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Udalek eta Kontzejuek, hala badira, haien kale-bideen osaketa eta izenetan izandako alda, aldaketa eta baja guztien berri emanen diote Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ekonomi Zerbitzuko Estatistika Atalari.

2. artikulua. Estatistika Atala arduratuko da Nafarroako kale izendegia eguneratuta edukitzean, kale-bide bakoitzari bere kodea ematen diola; horien berri emanen die toki entitateei eta informazio hori Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen eta Erakunde Autonomoen esku utziko du.

3. artikulua. Koordinazio hobea lortzeagatik, Estatistika Atalak aurreko artikuluan aipatutako eginbeharrak beteko ditu Estatistikaren Institutu Nazionalak Estatu osorako finkatzen dituen zehaztapenei jarraituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ahalmena eman zaio Ekonomi eta Ogasun Kontseilariari Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.-Foru Dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.

Iruñean, mila bederatzehun eta laurogeita hamalauko maiatzaren hamaseian.-Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, *Juan Cruz Alli Aranguren*.-Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria, *Juan Ramón Jiménez Pérez*.

A9403136

Xedapen Orokorrak. Foru Aginduak

105/1994 FORU AGINDUA, apirilaren 5koa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Arte Ikasketen Ikastetxe Publikoetan Pertsona Bakarreko Gobernu Organoak hautatzeko arauak ematen dituena.

Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berritzatzeko Zerbitzuko Zuzendariak txostena aurkeztu du, Pertsona Bakarreko Gobernu Organoak hautatzeko deialdia nola arautu proposatzen duena.

Irakaskuntza ez-Unibertsitateko arloko eginkizun eta zerbitzuak Estatutik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzen dituen abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretua aplikatuz, eta kontutan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko Arte Ikasketen Ikastetxe Publikoetako Gobernu organoak arautzen dituen martxoaren 15eko 94/1993 Foru Dekretuan xedaturikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 36.2 c) eta d) artikulua emandako ahalmenen indarrez.

AGINDU DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arte Ikasketen Ikastetxe publikoetan, zeinetan 1993-94 ikasturtean agintaldia bukatu eta zuzendaritza karguak eraberritu behar diren, Pertsona Bakarreko Gobernu Organoak hautatzeko arauak ematea.

2. Foru Agindu hau aurreko puntuan aipatutako Arte Ikasketen Ikastetxe Publikoetako Zuzendaria hautatzeko aplikatuko da, martxoaren 15eko 94/1993 Foru Dekretuaren 3, 8, 12. artikuluetan eta Xedapen Iragankorrean ezarritakoaren indarrez sortzen diren lanpostu betegabeen kasuetan.

3. Ikastetxeko Zuzendariak beharrezko diren neurriak hartuko ditu hauteskundearen garapena bermatu ahal izateko, martxoaren 15eko 94/1993 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. Zuzendari kargurako hautagaiek irakasle beharko dute izan, ikastetxe horretan behin betiko destinoarekin urtebetez bederen aritu izanak, eta hiru urtez irakaslanetan Arte Ikasketen Ikastetxe Publikoetan.

5. Hautagaiek Eskola Kontseiluan idatziz aurkeztu beharko dituzte, guttienez hauteskunde eguna baino hamabost egun natural lehenago, beren programen eta merezimendu profesionalen oinarriko atalak.

6. Zuzendariak 1994.eko ekainaren 16a baino lehen hautatuko dira. Egun horretan, 94/1993 Foru Dekretuaren 9. artikuluan aurriztatutako Hauteskunde Mahaiak Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berritzatzeko Zerbitzura igorriko du, gehiengo absolutua lortzen duen hautagai-izena duen proposamena.

7. 1. Orain dagoen Zuzendariak bere kargua uztean, Ikastetxean berak proposaturik izendatuta dauden pertsona bakarreko gobernu organoek ere beren karguak utziko dituzte.

2. Hautatutako Zuzendariak pertsona bakarreko gainerako Gobernu organoen izendapena proposatuko diote Ikastetxeko Eskola